

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### GIZARTE POLITIKEN SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 488/2019 Erabakia, uztailaren 23koa. Onestea José Luis Alonso Quilchano jaunak Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde autonomoaren zuzendari-kudeatzaile postua uztea egindako zerbitzuak eskertuz**

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea eratzen duen ekainaren 20ko 21/1988 Foru Arauak xedatutakoaren arabera, Foru Gobernu Kontseiluari dagokio, erakunde autonomo horren Administrazio Kontseiluak proposatuta, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zuzendari-kudeatzailea izendatu eta kargutik kentzea.

Horrez gain, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubideari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauan eta Foru Kargu Publikoen Jarduna arautzen duen uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauaren 9 eta 11. artikuluetan xedatutakoaren arabera, Foru Gobernu Kontseiluari dagokio goi karguak eta konfiantzako gainerako langileak izendatzea eta kargutik kentzea, betiere sailletako diputatuen proposamenak hala eskatuta. Izendapen edo kargutik kentze horiek erabakian bertan ezartzen den egunetik aurrera izango dituzte ondorioak edo, beren-beregi zehaztu ezean, ALHAOn argitaratzen diren egunetik aurrera.

Ikusi da José Luis Alonso Quilchanok aurkeztutako ukoa; beraz, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluak eta Gizarte Politiken Saileko Foru Diputatuak proposatuta, Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu eta gero, hau

#### ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. José Luis Alonso Quilchano Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde autonomoaren zuzendari-kudeatzaile kargutik kentzea, eta egindako lanarengatik eskerrak ematea.

Bigarrena. Erabaki honek 2019ko uztailaren 23tik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko uztailaren 23a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Gizarte Politiken Saileko foru diputatua*

**EMILIO SOLA BALLOJERA**